

90. urteurrenean

BILBAO EGUREN, Jose Luis
Bizkaiko Ahdun Nagusia
Diputado General de Bizkaia

Gipuzkoako Ahdun Nagusia,
Euskaltzainburua eta
euskaltzainok,
agintariok,
jaun-andreok,
egun on.

Ni oso laburra izango naz. Nire aititak eta amamak euskaldunak ziren, nire gurasoek, gerra pasata gero, diktadurapean, Bilbon, euskera galdu eben; ni erdelduna jaio nintzen, eta aspalditik euskalduna naz, eta nire hiru semeak euskaldunak dira, EGAdunak gainera. Hauxe da nire bizitzaren zati berezi bat. Nik uste dot bide horretatik etorriko jakula gure hizkuntzaren etorkizuna. Horrexegatik gaur euskeraren herrian, euskaldunen herrian, Euskal Herrian, bizkaitarren izenean, zorionak Euskaltzaindiari. Zorionak zuen urtebetetzean eta eskerrik asko zuek egin dozu eta egingo dozu lanagatik gure hizkuntzaren alde. Zorionak eta urte askotarako. Eskerrik asko.